

**Elorrioko Udalaren
Azterketa-diagnostikoa**

**Análisis-diagnóstico del
Ayuntamiento de Elorrio**

1994



Elorriko Udala
Euzko Leizola
Elorriko Udala
Vitoria-Gasteiz

Elorriko Udalaren Azterketa-diagnostikoa

Análisis-diagnóstico del Ayuntamiento de Elorrio

1994

Vitoria/Gasteiz, 1995eko abenduak 5

Vitoria/Gasteiz, a 5 de diciembre de 1995



SARRERA

Elorrioko Udalak eskatutako fiskalizazioari dagokionez, horretarako behar adina baliabide eskura ez izanik eta HKEE honen Lan Planaren barruan aurrikusia ez egoteagatik egiterik ez dagoenez, haren azterketa mugatua egin da Udalaren 1994. ekitaldiko Kontu Orokorrean jasotako dokumentazioaren bitartez, Udalak, 95.1.25ean HKEEko langileen eta udal kontuhartzailerearen eta idazkariaren artean izandako lan bilkuran, emandako argibide osagarrien bitartez eta 94ko ekitaldiko toki erakundeen diagnostikoaren parte den barne kontrolari buruzko inkestaren azterketaren bitartez.

HEDADURA

Egindako azterketaren hedadura honako hau da:

- 94ko ekitaldiko aurrekontu-emaitzaren eta Diruzaintzaren 94.12.31ko soberakinaren kalkuluetan sartutako zenbatekoen azterketa.
- Erabilitako kontularitza prozeduren azterketa.
- Onetsitako aurrekontuaren eta aurrekontuko exekuzio oinarrien azterketa.
- 1994. ekitaldian langileen egoeraren azterketa, enplegatu publikoen kontratuen egoeraren legezketasuna zorrotz egiaztaturik, eta Funtzio Publikoari buruzko Legeari jarraiki lanpostuen zerrendarik ba ote den ere aztertzea.
- Erabilitako administrazio kontratazio prozeduren azterketa, baina espedienteen azterketa zehatz huts bat egin gabe.
- Emandako dirulaguntzen azterketa kontzeptual eta normatiboa.
- Zorpetzaren azterketa.

ONDORIOAK

Lehendabizi azaldu nahi genuke, ondorioetan batik bat aurkitutako gora-beherak aipatzen badira ere, diagnostikoan baloratu dugun kontrolaren maila orokorra ona dela, aztertutako alorretan aipatzen den bezala.

Ondotik ematen ditugu egindako lanean atera diren ondorioak, iharduketa esparruen arabera sailkatirik. Dena den, hauek ezin dira fiskalizazio lan baten emaitzat hartu eta bertan espresuki aipatzen ez diren alderdiak ere ezin dira orokortzat jo.



1. AURREKONTUAREN EMAITZA ETA DIRUZAINTZAKO SOBERAKINA

	Milioi pta.
Ekitaldi honetako aurrekontuaren emaitza	(23.598)
Likidatutako eskubideak.....	500.465
Artortutako obligazioak	524.063
Aurreko ekitaldietako aurrekontuen emaitza	(2.223)
Obligazioen balogabetzea.....	1.186
Eskubideen balogabetzea	3.409
EKITALDIKO AURREKONTUAREN EMAITZA	(25.821)
Aurrekontuaren emaitzaren doikuntza:	
Finantzetaren desbideratze positiboak.....	(6.405)
Diruzaintzako soberakinen bidez finantzatutako gastuak.....	-
RESULTADO DEL EJERCICIO AJUSTADO	(32.226)


Aurreko emaitzan gastuen denbora-izendapenetan eginiko akatsak atzeman ziren, dirulaguntzei buruzko ondorioetan komentatu direnak. Baina horiezaz gainera, honako egoera hauek ere aurkitu ditugu:

1.- Ekitaldiaren emaitzan ez dira 6.448 mila pezeta kontuan hartu. Kopuru hori aurreko ekitaldietan aurrekontu gastuetan erregistratutako BEZ euskarriari dagokio eta hortik Foru Ogasunak BEZaren aitortpenaren bidez itzultitakoa aurrekontuz kanpoko kobrantzarako eskubide bezala erregistratu zen.

2.- Aurrekontu emaitzaren doikuntzetan ez dira kontuan hartu aurreko ekitaldietan diruzaintzako soberakin positiboan bitartez finantzatutako gastuak, 67.697 mila pezeta egiten dutenak. Kopuru hori ekitaldian egiaz egindako gastuen zenbatekoari dagokio, aurreko ekitaldiko likidazioan lortutako Diruzaintzako Soberakinetatik dirusarreraren bidez finantzatu bada eta aurrekontuen araudiaren arabera ekitaldian aitortutako dirusarrera gisa kontabilizatzen ez badira.

Aurreko puntuen arabera aurrekontuko emaitzaren eta emaitza doituaren zenbatekoak honela finkatu behar ziren:

	Milioi pta.
Ekitaldiaren emaitza likidazioaren arabera.....	(25.821)
Foru Ogasunetik berreskuratzeko BEZ euskaria (1. puntua).....	6.448
Ekitaldiaren emaitza HKEEren arabera	(19.373)
Ekitaldiaren emaitza doitua likidazioaren arabera.....	(32.226)
Foru Ogasunetik berreskuratzeko BEZ euskaria.....	6.448
Diruzaintzako soberakinen bidez finantzatutako gastuak.....	67.697
Emaitza doitua HKEEren arabera	41.919



Diruzaintzako soberakina 65.019 mila pezetakoa da Udalaren Kontu Orokorren arabera. Horri dagokionez aipatu behar dugu arestian aipatutako puntuek ez dutela eraginik izaten, izan ere, hura kalkulatzeko, aurrekontuko zordun eta hartzekodunak eta Diruzaintzako guztizkoa zuzen hartu baitira kontuan.

Dena den, Kontu Orokorrean aurrekontuko eta aurrekontuz kanpokoan artean egiten den sailkapena ez dela zuzena esan beharra dago, izan ere arestian aipatutako BEZ euskarria aurrekontu gastua bezala kontabilizatu eta 1994ko urtarrilaren leian aurrekontuz kanpoko zorduntzat hartzearen ondorioz 6.448 mila pezetako soberakina erregistratu da aurrekontuz kanpoko Diruzaintza gisa. Hura Aurrekontu Diruzaintzan zenbateko horrextako mentsarekin berdindu da.

Zerga kontzeptuak direla eta kobratzeko dauden saldoi dagokienez, Diputazioak kobratzen dituen zergak kutxa irizpidearen barruan erregistratzen direla esan beharra dago, baina Udalak ez daki Foru Erakundearen mantentzen diren saldoetarik zein kobratu behar dituen.

Gainera, aipatu behar da kobraezinetarako ezarritako dotazioa % 100ean egiten dela, 12 hilabetetik beherako antzintasuna duten zergak direla-eta kobratzeko dauden saldo guztietarako. Horrek 26.191 mila pezeta egiten du, hau da, ekitaldi horretan likidatutako eskubideen % 5 gutxi gora-behera. Exekuzio bidean dauden zenbatekoak kobratzeko neurri egokiak hartuko balira, kaudimen gabeziatarako hornikuntza hau gurbilegia litzatekeela uste dugu.

2. KONTULARITZA BIDEAK

94.12.31n Kontularitza Publikorako plana artean ezarri gabe zegoen, beste arrazoi batzuen artean Inbentarioa baloratu ez zelako. Horrez gain, ondare publikoaren parte bati Jabetza Erregistroan eskritura egin eta inskribatu gabe zegoen.

Bestalde, kontularitza egitaraua badago ere, modulu guztietan ez dela erabiltzen esan beharra dago, neurri handi batean Ondare Kontularitza ezarri gabe dagoelako. Halaz guztiz ere, kontularitzako informatika programaren bidez lortzen ez den informazioa beste bide batzuetatik -baita informatikakoetatik ere- egiten dela aipatu behar da, ondare kontularitzari lotutako Egoera Finantzarioei buruzkoa izan ezik.

Horrezaz gainera, Udalera egindako bisitan egiaztatu ahal izan genuen 1995. ekitaldian ahaleginak egiten ari direla Kontularitza Publikorako Plan Orokorra abian jartzeko, baita sartu behar diren hasierako saldoak jasotzeko inbentarioaren balorazioa egiteko ere.

Ezarri diren kontularitza irizpideei dagokienez, gastu finantzarioak ez direla sortzapean irizpidearen barruan erregistratzen adierazi behar da, kuoten epemugen arabera baizik. Gure iritziz, ekitaldian sortutako gastu finantzario guztien erregistroa mamitzeko behar diren aldizkatzeak egin beharko lirateke ekitaldia ixterakoan.



3. AURREKONTUA ETA EXEKUZIO OINARRIAK

Hirugarrenek (Foru Diputazioa, Eusko Jaurlaritza, e.a.) finantzatuko dituzten obretarako aurrekontua udalaren diru ekarpenaren zenbateko garbiaren arabera egiten da, baina finantzaketa bere gain hartzen duen erakundeak dirulaguntza onartzen badu, behar diren aldaketak egingo dira aurrekontuan.

Aipatu iharduketaren ondorioz ulertzen da, Udalbatzak hasiera batean onartutako aurrekontuek ez dituztela egin beharreko iharduketak jasotzen, baizik eta horietatik Udalak berak finantzatu beharreko parteak, baita obra oso bat aurrekontuan sartzeko aurrekontuen aldaketak onartu behar direla ere. Horretarako, esan beharra dago hasierako aurrekontua 605 milioi pezetakoa izanik, dirusarreraren 7. kapituluko aldaketek 112 milioi pezetako gehikuntza ekarri dutela.

Aurrekontu iharduera horren aurrean adierazi behar dugu, nahiz salbuespen gisa egokia izan litekeen, ezin dela iharduera orokor bihurtu udal aurrekontua egiteko. Kontuan hartu beharko litzateke finantzaketa falta dela-eta gauzatu ezin den aurrekontu gasturen baten kasuan kredituak deuseztatzeko figura ere badela eta aurrekontuak udal iharduketak beren osotasunean jasotzen dituela eta ez udal fondoaren ekarpenaren arabera. Gainera, kredituen atxikipen figurari ere heldu ahalko zaio, finantzaketa irmo izan arte obrarik ez dela hasiko berrmatzeko.

Aurrekontuaren Exekuzio Oinarriei dagokionez, horien edukia arrazoizkoa bada ere, honako alderdi hauek arautzea gomendatzen dugu:

- "Gastuen proposamena" figura erabiltzeko muga kualitatibo eta kuantitatiboak. Ontzat jotzen dugu Udalak baliabide hori erabiltzea, nahiz eta aurrekontuko exekuzio oinarrietan haren erabilera arautu beharko litzatekeela uste dugun, haren iharduera hobetzeko.
- Beti ere indarreko legezkotasuna betez, "Kontratu txikiak" figura, Administrazio Publikoen Kontratuari buruzko Legearen 57. artikuluan jasotzen dena, erabiltzea zein kasutan den bidezkoa zehaztea.


4. LANPOSTU ZERREDA ETA LANGILEEN EGOERA

Udal aurrekontuaren langileei buruzko eranskin gisa, lanpostuen zerrenda eta aurrekontu plantila sartu dira.

Eranskin horrek Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legean (EFPL) agindutako betebeharrak aski ongi betetzen dituela uste bada ere, honako hiru adierazi behar da:

- Lanpostuei ez zaie hizkuntza eskakizunik ezarri, ezta derrigortasun egunik ere.
- Lanpostuen zerrendan aldibaterako lan kontratatuen lanpostuak ere sartu dira. Lanpostu horiek Udalaren behin-betiko plantilan sartzeko asmoa dagoenean baino ez lirateke bertan sartu behar. Horretarako legez agindutako sartzeko ihardunbideei jarraitu beharko litzaieke.

Bestalde, esan beharra dago ez dugula aurkitu legez funtzionarioendako gordeta izanik lan kontratatu firkoek betetzen duten lanposturik.



5. KONTRATAZIOA

Udalak 1994an egindako kontratazio espedienteen zerrenda eskatu da eta 6.786.809 pezetara iristen den 7 kontratuko zerrenda eman zaigu. 2 eta 6. kapituluaren gastua handiagoa zenez, >500.000 pezetako zordunen aitortpenaren 348 ereduak eskatu da, horren ordainketen batuketara osoa 488 milioi pezetakoa izanik, eta hori dela eta 140 milioi pta.ko zenbateko osoa egiten duten 15 espediente eskatu genituen. Espedienteen azterketan atzemandako gora-beherak honako hauek dira:

- Aguas del Norte-ri 32.191.164 pezetako zenbatekoan egindako ordainketak. Enpresak 5 urterako eskaintza bat egin zuen, baina beste 5 urtez luza daiteke, eta 92.12.17an Gobernu batzordeak onartu zuen. Ez dago harremanak arautzen dituen kontraturik eta esleipenean ez dago lehia printzipioa bete izanaren frogabiderik.
- Visconsa-ri 8.836.074 pezetako zenbatekoan egindako ordainketak, Buzkantz kalca urbanizatzeko obrei dagozkienak. Aipatu obrak Gobernu batzordeak 26.772.515 pezetako zenbatekoarekin esleitu zituen 94.4.24an eta BFDaren finantzaketa dute, 11/94 FDaren bidez 41.293.188 pezetakoko gehieneko zenbatekoarekin onartu zena.
- Udalak prezio kontrajarrien espedientea egin zuen, 13.981.431 pezetakoa, hasierako proiektuan jasotzen ez ziren obra osagarriak egiteko. Horrela, emandako dirulaguntzaren gehieneko muga agortzen zen. Iharduketa hori kudeaketarako eraginkorra bada ere, legearen aldetik kritikatu beharra dago.
- Urak ubideratu eta hodiratzeko Excavaciones Azkarate-ri 2.394.056 pezetako zenbatekoan esleitutako obren espedienteetan 3.343.156 pezetako likidazioa aurkeztu zen. Horretarako, lanak zabaltzeko espediente bat, 1.001.935 pezetakoa, burutu zen gero, aurrekontu batean oinarrituta enpresa berari esleitu zitzaiona.
- 9.872.312 pezetatan Niceto Urkijo bizitegi erabilera urbanizatzeko egokitzat jotzen den 4.3 sektoreko lurzorua birzartzeko proiektua prestatzeko espedienteetan ez da behar bestean ziurtatzen argitalpen eta lehia printzipioak betetzen diren.

Azterketa honen ondorio gisa esan daiteke, aurreko lerroaldeetan aurkitutako gora-beherak alde batera utzita, kontratazio arloan indarrean dagoen arautegia eta hura arautu behar duten printzipioak bete direla.

Bestalde, betebeharrak ekonomiko administratiboen eta baldintza teknikoaren kalitatea eta espedienteen izapidaketa zuzena nabarmendu nahi genituzke, baita horien edukia bera ere.



6. DIRULAGUNTZAK

Aurreko lerroaldeetan zehaztutakoa alde batera utzita, aztertutako dokumentazioaren arabera uler daiteke arlo honetan Udalaren barge kontrola arrazoizkoa dela.

Dirulaguntzak, 81.230.257 pezetara iristen direnak, Kultur eta kirol ihardueretarako dirulaguntzak arautzen dituen Udal Arautegiaren babescan eman dira eta aurrekontuan ere izendatu dira. Arautegi hori 92.12.30ean onartu zuen Udalaren Osoko Bilkurak eta 1993ko abenduaren 16ko 38. zk.ko BAAan argitaratu zen.

Egindako gastu osotik 58.848.594 pezeta Durangaldeko Mankomunitateari gastu ekarpenaren kontzeptuan egindako transferentziari dagozkio eta horietatik 13.107.006 pezeta 1993ko abenduko gastuei, 93ko likidazioari eta 88-89. urtealdietako likidazioari dagozkie, horiek euren ekitaldietan erregistratu behar baziren ere.

Garamendi'tar Agustin Musika Eskolari emandako dirulaguntzak 250.000 pezetako hileko ekarpenak jasotzen ditu urtarriletik urrira bitarteko operako, baina ez dakigu hori den irakas-denbora edota zentruaren 4. hiruhilekoko defizitaren parte bat bete gabe dagoen.

7. ZORPETZEA

94.12.31n dagoen zorra 339.102 mila pezetakoa da.

1994. ekitaldirako aurrekontuan jasotako finantza karga 78.820 mila pezetakoa dela eta aurrekontu horretako dirusarrerara arrunta 492.564 mila pezetakoa dela adieraziko dugu. Zenbateko horietatik % 16ko ratioa alera da.

Likidatutako zenbatekoak (finantza kargako 68.467 mila pezetak eta dirusarrerara arrunteko 427.521 mila pezetak) kontuan hartuta, ratio horrek antzeko ehunekoari eusten dio.

Esan beharra dago, pilatutako zorpetzearen zenbatekoa indarreko ekitaldiaren % 50aren ingurukoa bada ere, finantza kargak maila onargarrici eusten diela. Horren arrazoia da amortizazio epeak oso luzeak izan direla eta interes tasak oso aldakorrak, 1994.ekitaldian euren erreferentziako tasa den MIBORaren gutxitzeaz baliatu direnak.

INTRODUCCIÓN

En respuesta a la solicitud de fiscalización realizada por el Ayuntamiento de Elorrio, ante la imposibilidad de realización de la misma por la no disponibilidad de medios suficientes y no estar contemplados en el Plan de Trabajo de este TVCP/HKEE, se ha procedido a la realización de una revisión limitada a través de la documentación incluida en la Cuenta General del Ayuntamiento del ejercicio 1994, de la información adicional aportada por el Ayuntamiento en la reunión de trabajo mantenida entre personal del TVCP/HKEE y el interventor y Secretario municipales el día 25.10.95, y del análisis de la encuesta de control interno que forma parte del diagnóstico de Entidades Locales del ejercicio 94.

ALCANCE

El alcance de la revisión realizada es el siguiente:

- Análisis de las cifras incluidas en los cálculos del Resultado Presupuestario del ejercicio 94 y del Remanente de Tesorería a 31.12.94.
- Análisis de los procedimientos contables aplicados.
- Análisis del presupuesto aprobado y Bases de ejecución presupuestaria.
- Análisis de la situación del personal en el ejercicio 1994, haciendo énfasis en la legalidad de la situación contractual de los diferentes empleados públicos y de la existencia de una Relación de Puestos de Trabajo de acuerdo con la Ley de Función Pública.
- Análisis de los procedimientos de contratación administrativa utilizados, sin que ello consista en un análisis exhaustivo de los expedientes.
- Análisis conceptual y normativo de las subvenciones concedidas.
- Análisis de endeudamiento.

CONCLUSIONES

En primer lugar querríamos hacer constar que, aunque en las conclusiones se habla fundamentalmente de las incidencias detectadas, el nivel general de control que hemos concluido en el diagnóstico es favorable, tal y como se menciona a lo largo de las diferentes áreas analizadas.

A continuación exponemos las conclusiones obtenidas del trabajo realizado, clasificados en las diferentes áreas de actuación, sin que las mismas puedan considerarse como el resultado de una fiscalización, ni puedan generalizarse a aspectos que no se mencionen expresamente en las mismas.

1. RESULTADO PRESUPUESTARIO Y REMANENTE DE TESORERÍA

	Miles de ptas.
Resultado presupuestario del ejercicio corriente.....	(23.598)
Derechos liquidados.....	500.465
Obligaciones reconocidas.....	524.063
Resultado presupuestario de ejercicios anteriores.....	(2.223)
Anulación de obligaciones.....	1.186
Anulación de derechos.....	3.409
RESULTADO PRESUPUESTARIO DEL EJERCICIO	(25.821)
Ajustes al Resultado Presupuestario:	
Desviaciones positivas de Financiación.....	(6.405)
Gastos Financiados con Remanentes de Tesorería.....	-
RESULTADO DEL EJERCICIO AJUSTADO	(32.226)

En el Resultado anterior, además de errores en la imputación temporal de los gastos, los cuales se comentan en las conclusiones sobre subvenciones, hemos detectado las siguientes situaciones:

1.- No se ha considerado en el resultado del ejercicio 6.448 miles de ptas. correspondiente a IVA soportado que habían sido registrados como gasto presupuestario en ejercicios anteriores, y cuya devolución por Hacienda Foral, vía declaración de IVA, estaba registrado como un derecho de cobro extrapresupuestario.

2.- En los ajustes al resultado presupuestario, no se han considerado los gastos financiados con remanentes de tesorería positivos de ejercicios anteriores, ascendiendo dicho importe a 67.697 miles de ptas. Dicho importe hace referencia al montante de gastos del ejercicio efectivamente realizados que han sido financiados con ingresos procedentes de Remanentes de Tesorería positivos obtenidos en la liquidación del ejercicio anterior, y que de acuerdo con la normativa presupuestaria no se contabilizan como ingresos reconocidos en el ejercicio.

De acuerdo con los puntos anteriores las cifras de Resultado del ejercicio y Resultado ajustado debieran haberse fijado en:

	Miles-ptas.
Resultado del ejercicio s/liquidación.....	(25.821)
IVA soportado a recuperar de Hacienda Foral (punto 1).....	6.448
Resultado del ejercicio s/TVCPA/HKEE.....	(19.373)
Resultado del ejercicio ajustado s/liquidación.....	(32.226)
IVA soportado a recuperar de Hacienda Foral.....	6.448
Gastos financiados con Remanentes de Tesorería.....	67.697
Resultado ajustado s/TVCPA/HKEE.....	41.919



En cuanto al Remanente de Tesorería, que según la Cuenta General del Ayuntamiento, asciende a 65.019 miles de ptas., debemos indicar que los puntos indicados anteriormente no afectan al mismo, ya que para el cálculo del mismo se han considerado, correctamente, tanto los deudores y acreedores presupuestarios y el total de la Tesorería.

No obstante, señalaremos, que el desglose de la Tesorería que se hace en la Cuenta General entre presupuestaria y extrapresupuestaria no es correcto ya que la contabilización del IVA soportado antes señalado, como gasto presupuestario y su inclusión como deudor extrapresupuestario a 1 de enero de 1994, provoca que esté registrado un exceso de 6.448 miles de ptas. como Tesorería extrapresupuestaria que se compensa con un defecto del mismo importe en la Tesorería presupuestaria.

En cuanto a los saldos pendientes de cobro por conceptos fiscales, hay que mencionar que aquellos impuestos que se cobran por Diputación se registran con el criterio de caja, desconociendo el Ayuntamiento los saldos a cobrar a su favor que se mantienen en la Institución Foral.

Además, señalaremos que la dotación para incobrables se realiza al 100% por todos los saldos pendientes de cobro por impuestos con antigüedad inferior a 12 meses, ascendiendo dicha cifra a 26.191 miles de ptas., lo cual significa aproximadamente un 5% de los derechos liquidados en el ejercicio corriente. Entendemos que esta provisión para insolvencias sería excesivamente prudente, si se toman las medidas adecuadas para el cobro de las cantidades que se encuentran en vía ejecutiva.

2. PROCEDIMIENTOS CONTABLES

A 31.12.94 estaba sin implantar el Plan de Contabilidad Pública, entre otras causas por la falta de valoración del Inventario. A este punto añadiremos que parte del patrimonio público no está escriturado e inscrito en el Registro de la Propiedad.

Por otro lado, es preciso indicar que si bien se cuenta con un programa de Contabilidad, el mismo no se está utilizando en todos sus módulos, en gran parte a causa de la falta de implantación de la Contabilidad Patrimonial. No obstante, hay que indicar que la información que no se obtiene a través del programa informático de contabilidad se confecciona por otros medios, incluidos informáticos, a excepción de los Estados Financieros ligados a la contabilidad patrimonial.

Adicionalmente, señalaremos que en la visita realizada al Ayuntamiento pudimos constatar que durante el ejercicio 1995 se está realizando un esfuerzo para la puesta en marcha del Plan General de Contabilidad Pública, y la realización de la valoración del inventario que soporte los saldos iniciales a incluir en la misma.

En cuanto a criterios contables aplicados, hemos de indicar que los gastos financieros no se están registrando por el criterio de devengo, sino por fecha de vencimiento de las cuotas. En nuestra opinión, al cierre del ejercicio debieran realizarse las periodificaciones oportunas que posibiliten el registro de todos los gastos financieros devengados en el ejercicio.

3. PRESUPUESTO Y BASES DE EJECUCIÓN

La presupuestación de aquellas obras que van a ser objeto de financiación por terceros (Diputación Foral, Gobierno Vasco, etc.), se hace por el importe neto de la aportación municipal, procediéndose a las modificaciones presupuestarias oportunas en caso de aprobación de la subvención por el ente financiador.

La actuación mencionada, supone que los presupuestos inicialmente aprobados por el Pleno Municipal no contemplan las actuaciones a llevar a cabo, sino la parte de ellas a financiar por el propio Ayuntamiento, siendo necesaria la aprobación de modificaciones presupuestarias para la inclusión en el presupuesto de una obra en su conjunto. A estos efectos, indicaremos que con un presupuesto inicial de 605 millones de ptas., las modificaciones del Capítulo 7 de ingresos han supuesto un incremento de 112 millones de ptas.

Ante dicha práctica presupuestaria, hemos de indicar que si bien excepcionalmente pudiera considerarse apropiada, no puede ser una práctica generalizada para la confección del presupuesto municipal. Debiera tenerse en cuenta la existencia de la figura de anulación de créditos, para aquellos casos en los que algún gasto presupuestado no pudiera llevarse a cabo por falta de financiación, y desde luego, hay que considerar que el presupuesto hace referencia a actuaciones municipales en su globalidad y no por la aportación de fondos municipales. Además, y como garantía de no iniciar las obras hasta tener financiación en firme, podría acudirse a la figura de retención de créditos.

En cuanto a las Bases de ejecución del Presupuesto, aun considerando razonable el contenido de las mismas, recomendamos que se regulen los siguientes aspectos:

- Límites cualitativos y cuantitativos para la utilización de la figura de la "propuesta de gastos". Valoramos positivamente el uso de dicho instrumento por el Ayuntamiento, aunque consideramos que, para su mejor funcionamiento, debiera regularse su utilización en las Bases de ejecución del presupuesto.
- Definición de los supuestos en los que procede la utilización de la figura de "Contratos Menores" contenida en el art. 57 de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, respetando siempre la legalidad vigente.

4. RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO Y SITUACIÓN DEL PERSONAL

Como anexo de personal al Presupuesto municipal, se incluye tanto la Relación de Puestos de Trabajo, como la plantilla presupuestaria.

Aun considerándose que dicho anexo cumple razonablemente los requisitos contenidos en la Ley de Función Pública Vasca (LFPV), hemos de señalar lo siguiente:

- Los puestos de trabajo no tienen asignado perfil lingüístico ni fecha de preceptividad.
- En la relación de puestos de trabajo se incluyen puestos referidos a personal laboral temporal. Dichos puestos sólo debieran incluirse en el caso de que hubiera intención de que pasaran a formar parte de la plantilla permanente del Ayuntamiento, utilizando para ello las pruebas de acceso legalmente establecidas.



Por otro lado, es preciso decir que no hemos detectado la existencia de puestos reservados por ley a funcionarios, que estén cubiertos por personal laboral fijo.

5. CONTRATACIÓN


Se solicita la relación de expedientes de contratación realizados por el Ayuntamiento en 1994, entregándonos una relación de 7 contratos por un importe de 6.786.809 ptas. Dado que el gasto de capítulo 2 y 6 era muy superior, se solicita el Modelo 348 de declaración de acreedores >500.000 ptas. cuya suma total de pagos ascendía a 488 millones de ptas., y a partir de la cual solicitamos 15 expedientes por un importe total de 140 millones de ptas. Las incidencias detectadas en el análisis de los expedientes son:

- Pagos a Aguas del Norte por 32.191.164 ptas., existe una oferta de la empresa que se aprueba en Comisión de Gobierno de 17.12.92, por un periodo de 5 años prorrogable por 5 más. No existe contrato que regule las relaciones, y en la adjudicación no hay evidencia de que se hubiera respetado el principio de concurrencia.
- Pagos a Visconsa por 8.836.074 ptas., correspondientes a las obras de urbanización de la calle Buzkantz adjudicadas por Comisión de Gobierno de 24.4.94 en 26.772.515 ptas. y para las cuales existe financiación de la DFB aprobada por DF 11/94 en una cuantía máxima de 41.293.188 ptas.

El Ayuntamiento realizó un expediente de precios contradictorios por 13.981.431 ptas. para la realización de obras complementarias que no constaban en el proyecto inicial con el fin de agotar el límite máximo de la subvención concedida. Aun siendo ésta una actuación eficaz en cuanto a la gestión, es criticable desde el punto de vista legal.

- En el expediente de obras de canalización y conducción de aguas adjudicada a Excavaciones Azkarate por 2.394.056 ptas., la liquidación presentada es de 3.343.156 ptas., para lo cual se realiza con posterioridad un expediente de ampliación de los trabajos por 1.001.935 ptas., que se adjudica sobre la base de un presupuesto a la misma empresa.
- En el expediente de Redacción del Proyecto de Reparcelación del Sector 4.3 suelo apto para urbanizar uso residencial Niceto Urkijo por 9.872.312 ptas. no queda suficientemente soportado el cumplimiento de los principios de publicidad y concurrencia.

Como conclusión al análisis realizado, se puede afirmar que, salvo por las incidencias detectadas en los párrafos anteriores, se cumple la normativa vigente y los principios que deben regir en materia de contratación.



Por otro lado, querríamos destacar la calidad de los Pliegos de Cláusulas económico-administrativas y de condiciones técnicas, así como la correcta tramitación de los expedientes y contenido de los mismos.

6. SUBVENCIONES

Debemos indicar que, al margen de las consideraciones realizadas en los párrafos siguientes, de la documentación analizada se desprende que el control interno del Ayuntamiento en éste área es razonable.

Las subvenciones, por un importe de 81.230.257 ptas., se han concedido al amparo de lo dispuesto en la Normativa Municipal Reguladora de la concesión de subvenciones a actividades culturales y deportivas, aprobada por el Pleno del Ayuntamiento el 30.12.92 y publicada en el BOB nº 38 de 16 de febrero de 1993 y por vía de su inclusión nominativa en el presupuesto.

Del total del gasto realizado, un importe de 58.848.594 ptas. corresponde a la transferencia en concepto de aportación de gastos a la Mancomunidad del Duranguésado, de las cuales un importe de 13.107.006 ptas. corresponde a gastos del mes de diciembre de 1993, liquidación del 93 y liquidación de los ejercicios 88-89 que debieron registrarse en sus correspondientes ejercicios.

La subvención concedida al Centro Musical Garamendi'tar Agustín Musika Eskola comprende aportaciones mensuales de 250.000 ptas. para el periodo comprendido entre enero y octubre, desconociéndose si ese es el periodo lectivo o bien queda por cubrir parte del déficit del centro del 4º trimestre.

7. ENDEUDAMIENTO

La deuda viva a 31.12.94 asciende a 339.102 miles de ptas.

Señalaremos que la carga financiera presupuestada para el ejercicio 1994 ascendía a 78.820 miles de ptas. ascendiendo el ingreso corriente en el mismo presupuesto a 492.564 miles de ptas. De dichas cifras resulta un ratio del 16%.

Teniendo en cuenta las cifras liquidadas, (carga financiera 68.467 miles de ptas. e ingreso corriente 427.521 miles de ptas.), dicho ratio se mantiene en un porcentaje similar.

Es necesario decir que a pesar de que la cifra de endeudamiento acumulado ronda el 50% del presupuesto del ejercicio corriente, la carga financiera se mantiene en unos límites aceptables. Esto se debe a unos periodos de amortización bastante dilatados y a unos tipos de interés variables, que durante el ejercicio 1994 se han aprovechado de la disminución del MIBOR, tipo de referencia de los mismos.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Abel 1. 41001 VITORIA GASTIZ
Abel 22.401.4 - 41001 VITORIA GASTIZ
Tel. 945 41 00 60 Fax 945 41 07 75